

## UNA CUADRI DE CUENTO

Érase una vez un lugar súper feliz, en el que habitaban unos niños que jugaban con sus amigos, sus aitas, sus hermanos y hermanas... Pasaban los días disfrutando de los suyos y hacían una vida "normal", vamos, lo que hacen los niños y niñas de su edad.

Un día aparecieron unos dragones malvados que invadieron su cuerpo, haciendo que su vida "normal" cambiara, haciéndoles enfermar.

Sus familias decidieron llevarlos a un sitio donde todos sus habitantes (desde los de bata blanca hasta los de bata rosa, pasando por los de bata gris, las de la bata con colorines que les daban clase y siguiendo por unas señoritas que instrumentos en mano dejaban todo limpísimo) intentaban curarles y ponerles bien, con toda su amabilidad, corazón y ganas, ayudados de unas pocímas que les metían por un tubito para hacer que esos dragones se fueran. Con el paso del tiempo esos niños, ayudados por todas esas personas y por sus familias se fueron convirtiendo en superhéroes, guerreros, princesas y demás personajes especiales, pero siempre con un factor común: su fuerza, alegría y ganas de vivir. Se hicieron amigos y formaron una cuadri, que se juntaba de vez en cuando en el lugar de las personas amables de las batas.

Como eran varios decidieron repartirse el trabajo. Unos se quedaron entre nosotros para hablar de toda esa gente maravillosa de las batas y contar a otros personajes especiales cómo iban afrontando su aventura, además de conseguir que esos dragones se fueran.

Otros, en cambio, marcharon a otra galaxia lejana para buscar que los dragones se fueran y los dejaran hacer una labor, con la ayuda tanto de sus aitas como la de los aitas de los personajes especiales que se quedaron aquí. Esta labor era que intentasen acabar con la plaga de dragones que iba entrando en otros niños, haciendo que ese proceso fuera lo más humano posible, intentar recaudar tesoros para poder estudiar cómo combatir a los dragones e informar a las familias que no tenían ni superhéroes, ni guerreros, ni princesas, acerca de que podían ayudar, dando un poquito de su cuerpo, para que lo metiera en los cuerpos de los personajes especiales y así los dragones se fueran de ellos.

De esta forma nació una forma de vida especial con todos esos superhéroes, guerreros, princesas que a partir de entonces pasó a tomar un nombre especial, "**La Cuadri del Hospi**".

## IPUINETAKO LAGUNARTEA

Bazen behin lurralte bat, benetan ere lurralte alaia. Umeek jolasean ematen zuten ia egunik gehienak, euren neba-arreba, guraso nahiz lagunekin. Lurralte alai hartako umeek bizimodu normala egiten zuten, eta eguneroko biziopoa euren senitarteko eta ezagunen maitasuna eta adiskidetasuna zen. Hau da, gutxi-asko, adin horretako edozein umeren antzeko bizimodua zeukaten.

Egun ilun batean, ostera, herensuge zital batzuk agertu ziren; umetxoen gorputzak indarrez hartu, eta ordura arteko bizimodu "normala" irauli, eta umeak gaixotu zituzten.

Gurasoek ume gaixotuak sendatzera eraman zituzten, berriz ere "normal" jartzen saiatuko ziren parajera. Hango izakiek kolore desberdinako batak janzten zituzten: zuriak, arrosak, grisak edo koloreanitzak. Denak ziren bihotz onekoak, denak atseginak. Eta euren gogorik eta handienarekin eginahalak egiten zituzten umetxoen gaixoa arindu eta sendatzeko, bai eskolak emanetz, bai hegalak garbitzen, baita edariak prestatzen ere. Egunak joan egunak etorri, umetxoak heroi, gerrari, printzesak eta pertsonaia berezi bihurtu ziren, etxekoak eta janzkerak berezidun izakien laguntzaz. Umeak lagun egin, eta lagunartea sortu zuten; bizitzeko gogoa, alaitasuna eta poza ardatz zeukan lagunarte alaia. Eta noizean behin han elkartzen ziren, batadun izakienean.

Baina asko ziren, eta lana elkarren artean banatzea pentsatu zuten. Batzuk gure artean lotuko ziren; izaki batadunen lan eta izaera zoragarriaz hitz egiteko, batetik; eta pertsonaia berezi berriei bizitza egokitu zitzaien abenturari nola aurre egin kontatzeko, bestetik. Eta, nola ez, herensugeak gorputzetik uxa daitezkeela jakinarazteko.

Beste batzuk, ordea, urruneko galaxia batera joan ziren, eurekin batera herensugeak eramanetz, eta gurasoei, pertsonaia berezik gurasoekin elkarlanean, zeregina utziz: umetxoen gorputzak indarrez hartzen dituzten herensugeen izurritearekin amaitzea. Ordenu latz horretan hainbat zeregin dago egiteko, besteak beste, herensugeak uxatzeko prozesuari gizatasun handienarekin aurre egin, herensugeei gehiago egiteko altxorrak batu, eta heroikrik, gerraririk edo printzesarik ez duten sendieie ulertarazi euren gorputzaren txatal txikitxo batek pertsonaia berezik gorputzetatik herensugeak uxa ditzakeela.

Hala, era horretan, bizitzeko modu berezi bat sortu zen, harrezkero "**Ospitaleko Lagunartea**" izenez ezagutu zena.

UME MINBIZIDUNEN ETA HEZUR-MUINEKO  
DOHAINTZA HEDAPENAREN ALDEKO  
ELKARTEA



# LA CUADRI DEL HOSPI

ASOCIACIÓN EN BENEFICIO DE LA CAUSA  
DEL CÁNCER INFANTIL Y LA DIVULGACIÓN  
DE LA DONACIÓN DE MÉDULA ÓSEA

[www.lacuadridelhospi.org](http://www.lacuadridelhospi.org)  
[www.facebook.com/lacuadridelhospi](http://www.facebook.com/lacuadridelhospi)  
[info@lacuadridelhospi.org](mailto:info@lacuadridelhospi.org)



656 794 116



# LA CUADRI DEL HOSPI



## NORTZUK GARA

"Ospitaleko lagunartea" izeneko elkartea Bermeon sortu zen 2015. urteko hasieran. Elkartea, haurren minbiziaren gizatiartze, sozializazio eta ikerketarekin, eta hezur-muina emateko zabalkundearekin konprometituta dago.

Elkartea Barakaldo-Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Haurren Onkologia atalean prozesu onkologikoren bat duten edo izan duten haurren gurasoek osatzen dute, eta euren esperientziatik, egoera berean egon daitezkeen familie lagunza eskaini nahi die, eta bide batez gizartea sentiberatu eta gaixotasunaren ikerketan lagundi.

## QUIENES SOMOS

La Asociación "La cuadri del Hospi" nació a principios de 2015 en Bermeo, comprometida con la Humanización, socialización e investigación del cáncer infantil y la divulgación de la donación de la médula ósea.

La Asociación está formada por padres y madres de niños, niñas y adolescentes que padecen o han padecido un proceso oncológico en la Unidad de Oncología Infantil del Hospital Universitario de Cruces-Barakaldo, y que desde su experiencia quieren ayudar a las familias que pasen por la misma situación, sensibilizar a la sociedad así como a contribuir en el estudio e investigación.

## LORTU NAHI DITUGUN HELBURUAK

Irabazi asmorik gabeko elkartea honen helburuak ondokoak dira:

- Haur onkologikoaren eta bere familiaren irudia eta bizitza normalizatzen laguntzea.
- Barakaldo-Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko haur onkologikoen eta euren familien eguneroko bizimodu errazteko ekimenak antolatzea eta sustatzea.
- Haurren minbiziaren aurkako azterketa eta ikerketa medikuak eta zientifikoak bultzatzeko dirua biltzea.
- Gizarte osoa kontzientziatzea, hezur-muina ematearen garrantziaz.
- Emoziozko babes-sarea antolatzea haur horientzat eta euren familiertzat.



## FINES QUE PERSEGUIMOS

Los objetivos de esta Asociación sin ánimo de lucro son:

- Contribuir a normalizar la imagen y vida del niño y niña oncológico y sus familias.
- Organizar y promocionar iniciativas que contribuyan a facilitar la vida del día a día de los niños y niñas oncológicos del HU de Cruces-Barakaldo y de sus familias.
- Recaudar fondos para promover estudios e investigaciones médico-científicas en la lucha contra el Cáncer Infantil.
- Concienciar a la población en general sobre la importancia de la Donación de Médula Ósea.
- Organizar una red de apoyo emocional para estos niños y niñas y sus familias.

## ZER EGITEN DUGU

Horretarako, ondoko ekintzak antolatuko ditugu:

- Noizean behin jolas- eta jai-guneak antolatuko ditugu edo horietan parte hartuko dugu: feriak, azokak, maratoi solidarioa, jaialdiak, kontzertuak..., arazoa bera erakusteko eta helburu orokorrak lortzen laguntzeko.
- Kanpainak antolatuko ditugu dirua biltzeko: kamisetak, motxilak, loteria, kirol-jarduerak edo txapelketak...
- Haur onkologikoen bizi-kalitatea hobetzeko jarduerak antolatuko ditugu; adibidez, txangoak, jaialdiak..., gizarte-harremanak bultza daitezen, modu horretan gaixotasunak berak batzuetan sortzen duen bakardadea saihestuz.
- Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Onkología Ataleko instalazioak eta dotazioak hobetzeko lagunza eskainiko dugu.

## QUÉ HACEMOS

Para ello se realizarán las siguientes actividades :

- Organización y/o participación en espacios lúdico festivos ocasionales como ferias, mercadillos, maratón solidario, festivales, conciertos... con el objetivo de visualizar la problemática y ayudar a la consecución de los objetivos generales.
- Organización de campañas/jornadas de sensibilización general sobre la importancia de la donación de Médula Ósea.
- Desarrollo de campañas para la obtención de fondos: camisetas, mochilas, loterías, actividades, torneos deportivos...
- Organizar actividades que mejoren la calidad de vida de niños y niñas oncológicos, tales como excursiones, festivales, etc. Y así fomentar el contacto y las relaciones sociales evitando el aislamiento que a veces produce la enfermedad.
- Contribuir a la mejora de las instalaciones y dotaciones de la Unidad de Oncología infantil del Hospital Universitario de Cruces.